




HAURREN
DEFINIZIOA



DISKRIMINAZIO-
RIK EZ



ONENA EGITEA
HAUR BAKOITZARI



GAUZATU EGIN
BEHAR DIRA
ESKUBIDEAK




FAMILIA
ORIENTATZAILEA



BIZITZA,
BIZIRAUPENA ETA
GARAPENA



IZENA ETA
NAZIONALITATEA



IDENTITATEA



FAMILIAK
ELKARTUTA
MANTENTZEA



FAMILIAREKIKO
HARREMANA
IRAUNARAZTEA




BAHIKETAREN
AURKAKO BABESA



HAURREN IRITZIA
ERRESPEATATZEA



ADIERAZPEN-
ASKATASUNA



PENTSAMENDU-
ETA ERLIJIO-
ASKATASUNA



ELKARTZEKO ETA
BATZARRAK EGITEKO
ASKATASUNA



PRIBATUTASUNA
BABESTEA



INFORMAZIO-
RAKO SARBIDEA



FAMILIEN
ERANTZUKIZUNA



INDARKERIAREN
AURKAKO BABESA



FAMILIARIK
GABEKO HAURRAK



ADOPZIOA




HAUR
ERREFUXIATUAK



DESGAITASUNA
DUTEN HAURRAK



OSASUNA, URA,
ELIKADURA ETA
INGURUMENA



BARNERATZE-
EGOERAK
IKUSKATZEA



GIZARTE-
LAGUNTZAK ETA
DIRU-LAGUNTZAK




ELIKAGAIAK, JANTZIA
ETA ETXEBIZITZA
SEGURU BAT



HEZKUNTZARAKO
SARBIDEA




HEZKUNTZAREN
HELBURUAK




GUTXIENGOEN
KULTURA,
HIZKUNTZA ETA
ERLIJIOA



ATSEDENA,
JOLASA, ARTEA
ETA KULTURA




BABESA LAN
ARRISKUTSUAREN
AURKA



BABESA DROGEN
AURKA



BABESA ABUSU
SEXUALAREN
AURKA




PREBENTZIOA
SALEROSKETAREN
AURREAN




BABESA
ESPLOTAZIOAREN
AURKA




HAUR ATXILOTUAK



BABESA GERRETAN



OSATZEA ETA
GIZARTERATZEA



LEGEAK URRATZEN
DITUZTEN
HAURRAK



LEGE
FABORAGARRIENA
APLIKATZEA



DENEK EZAGUTU
DITZATELA
ESKUBIDE HAUEK

43-54



NOLA
FUNTZIONATZEN
DU HITZARMENAK

HAURREN ESKUBIDEAK

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIO BATUEN HITZARMENA BILDUA
– BERTSIO LABURBILDUA

Haur bat 18 urte baino gutxiago dituen pertsona bat da. 18 urtetik beherako guztiek dituzte Hitzarmen honetan biltzen diren eskubide guztiak.	Haur guztiek dituzte eskubide horiek, nortzuk diren, non bizi diren, zer hizkuntza hitz egiten duten, zer eskualde edo kulturakoak diren, neskak edo mutilak diren, desgaitasunen bat duten, aberatsak edo pobreak diren alde batera utzita, eta beren gurasoen edo familien sinesmena edo jarduna edozein izanda ere. Haur bakar batek ere ez du jaso behar bidegabeko traturik.	Helduek haurrentzat onuragarriena den guztia egin behar dute. Erabakiak hartzen dituztenean pentsatu egin behar dute haurrengan zein eragin izango duten. Gobernuak ziurtatu egin behar dute haurrek beren familien edo beste pertsona batzuen babesa eta zaintza jasotzen dituztela. Gobernuak ziurtatu egin behar dute haurrak zaintzeko eta babesteko dauden zerbitzuak eta lekuak kalitate onekoak direla.	Gobernuak behar den guztia egin behar dute ziurtatzeko Hitzarmen honetan bildutako eskubide guztiak herrialde guztietako haur guztiek erabil ditzaketela.	Gobernuak utzi egin behar diete familiei eta komunitateei beren haurrak orientatzen, haiek hazi ahala, beren eskubideak behar bezala erabiltzen ikas dezaten.	Haur guztiek dute bizitzeko eskubidea. Gobernuak ziurtatu egin behar dute ahalik eta ondoen biziraun eta garatzen direla haurrak.	Haur orok du izen bat izateko eskubidea, gobernuak ofizialki onartuko duena. Nazionalitate bat izan behar du (herrialde batekoa izatea). Ahal den neurrian, haurrek ezagutu egingo dituzte gurasoak eta zaintza jasoko dute haiengandik.
Haurrek identitate bat izateko eskubidea dute: erregistro ofizial bat, nortzuk diren, haien izena, nazionalitatea eta familia-loturak barnean hartuko dituen. Inork ezingo die kendu identitatea, baina halakorik gertatuz gero, gobernuak lagundu egin behar dute haien identitatea berehala berreskuratzen.	Haurrak ez dira beren familiarengandik bananduak izan behar, beren onerako bada izan ezik, kasu hauetan: tratu txarrak jasotzen badituzte edo abandonatzen badituzte. Gurasoak elkarrekin bizi ez badira, harremanetan egon behar dute biekin, harremana beren kalterako den kasuetan izan ezik.	Haur bat bere familiarena ez den herrialde batean bizi bada, gobernuak baimendu egin behar dute bi aldeak bidaiatzea harremanetan eta elkarrekin egon ahal izateko.	Gobernuak geldiarazi egin behar dute haurren legez kanpoko irteera herrialdetik, kasu hauetan: norbaitek bahitu dituenean edo gurasoetako batek edo beste pertsona batzuek atxiki dituztenean atzerrian.	Haurrek eskubidea dute beren iritzia emateko eragiten dieten gaiiei buruz eta helduek haiei entzuteko eta haiek aintzat hartzeko.	Haurrek eskubidea dute informazioa jasotzeko, gauzak ezagutzeko eta beren iritzia beste batzuekin partekatzeko, hitz eginez, marrazkien bidez, idatziz edo beste edozein modutan, betiere beste pertsona batzuei kalte egiten ez badiete.	Haurrek askatasuna dute beren pentsamenduak, sinesmenak eta erlijioa izateko, betiere hori eragozpide ez bada beste pertsona batzuek beren eskubideak erabiltzeko. Familiek haurrak gida ditzakete beren eskubideak egokiro erabil ditzaten.
Haurrek elkarreak sortu edo kide egin daitezke taldeetan edo erakundeetan, eta batzarrak egin ditzakete beste haur batzuekin, inori kalterik egiten ez zaion bitartean.	Haurrek eskubidea dute beren bizitza pribatua izateko. Legeak babestu egin behar ditu haien intimitate indibiduala, haien familiarena, haien etxearrena, haien komunikazioena eta haien izen onarena, legezkoa ez den edozein interferentziaren aurrean.	Haurrek eskubidea dute informazioa jasotzeko, irratitik, telebistatik, egunkarietatik, liburuetatik, internetetik eta beste iturri batzuetatik. Helduek ziurtatu egin behar dute haurrei iristen zaien informazioa ez dela kaltegarria. Gobernuak bultzatu egin behar dituzte hedabideak haurrentzako informazio ulergarria eta interesgarria partekatzea, iturri desberdinak erabilita.	Gurasoak edo legezko tutoreak dira haurren hazkuntzaren arduradun nagusiak, eta beti hartu behar dute kontuan haientzat onuragarriena dena. Gobernuak eman egin behar dituzte zerbitzuak familiei edo tutoreei laguntzeko, lanean ari badira batez ere. Erantzukizuna partekatua da bi guraso edukiz gero.	Gobernuak ziurtatu egin behar dute haurrak behar bezala zainduta eta babestuta daudela zaintzen dituen edonoren indarkeria, abusu, tratu txar eta zabarkeriatik.	Beren familiaren zaintza jaso ezin duten haur guztiek dute eskubidea beste pertsona batzuen aldetik laguntza egokia jasotzeko, beren erlijioa, kultura, hizkuntza eta beren bizitzaren beste alderdi batzuk errespetatuta.	Haur bat adoptatzen denean, bere ongizatearen alde onena egitea da garrantzitsuen. Beren herrialdeetan behar bezalako laguntza jaso ezin badute (adibidez, adopzioaren, harreraren edo beste soluzioren baten bidez) orduan beste herrialde batean adopzioan har daitezke.
Errefuxiatu gisa herrialde batera iristen diren haurrek (arriskutsua izan daitekeelako beren jatorrizko herrialdean geratzea) laguntza eta babesa jaso behar dituzte eta herrialde horretan jaiotakoen eskubide berak izan behar dituzte.	Desgaitasunak dituzten haurrek zaintza eta arreta berezia jasoko dituzte gizartearen ahalik eta bizitza osoena izan dezaten.	Haurrek eskubidea dute ahalik eta osasun-laguntza onena jasotzeko, edateko ura eta elikagai nutritiboak izateko, eta ingurumen osasungarri eta garbi batean bizitzeko. Haur guztiek izan behar dute informazioa modu seguru eta osasungarri batean bizitzeko.	Agintariak haurrak barneratuta dituztenean (zaintzarako, babeserako eta osasunerako) erregularitasunez ikuskatu behar da haien egoera.	Gobernuak dirua edo bestelako babesa eta baliabideak eman behar dituzte familia behartsuetako haurrei laguntzeko.	Haurrek eskubidea dute elikagaiak, arropa eta oinetakoak eta bizitzeko leku seguru bat izateko, horrela ahalik eta ondoen garatu daitezen. Gobernuak lagundu egin behar die halakorik edukitzea ezinezkoa zaien familiei.	Haur guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Lehen hezkuntzak doakoa izan behar du. Denek izan behar dute bigarren hezkuntzarako eta goi-mailakorako sarbidea. Haurrak bultzatu egin behar dira ahalik eta maila altuenera arte eskolara joatera. Eskola-diziplinak errespetatu egin behar ditu haurren eskubideak eta haien duintasuna.
Hezkuntzak lagundu egin behar die haurrei beren nortasunaren, talentuen eta gaitasunen garapen osoa lortzen. Beren eskubideak eta kultura ulertzen eta errespetatzen erakutsi behar zaie, baita gainerakoenak ere. Bakean bizitzen eta ingurumena babesten lagundu behar zaie.	Haurrek eskubidea dute beren kultura, hizkuntza eta erlijioa erabiltzeko, bizi diren herrialdeko jende gehienak partekatzen ez baditu ere.	Haur guztiek eskubidea dute atsedean hartzeko, erlaxatzeko eta jolasteko, baita jarduera kulturetan eta artistikoetan parte hartzeko ere.	Haurrek eskubidea dute babestuak izateko beren hezkuntzarentzat, osasunarentzat edo garapenarentzat kaltegarria izan daitekeen lanaren aurka. Lan egiten badute, eskubidea dute baldintza seguruetan egoteko eta bidezko soldata bat jasotzeko.	Gobernuak babestu egin behar dituzte haurrak droga kaltegarrien kontsumotik, elaboreziotik, banaketatik eta salmentatik.	Gobernuak babestu egin behar dituzte haurrak esplotaziotik eta abusu sexualetik, prostituzioa eta pornografia barne (haurrak diruagatik harreman sexualak izatera behartzea edo argazkietan edo pelikuletan agertzea sexua praktikatzan).	Gobernuak ziurtatu egin behar dute haurrak ez direla bahituak, salduak eta beste herrialde batera legez kontra eramanak izango edozein xedetarako.
Gobernuak babestu egin behar dituzte haurrak haien ongizateari kalte egingo dion beste edozein esplotazio-modutik.	Legea urratzeaz akusatutako haurak ezin dira exekutatu, torturatu, krudel tratatu, biziarteko espetxe zigor batekin kondenatu edo kartzelan helduekin batera ipini. Kartzelak azken aukera izan behar du, eta ahalik eta denbora-tarte laburrenerako. Kartzelan dauden haurrek laguntza legala jaso behar dute eta harremanetan egon behar dute beren familiekin.	Haurrek eskubidea dute gerretan babesa jasotzeko. 15 urte baino gutxiagoko haur bakar batek ere ezin izango du gatazkan parte hartu eta ezin izango da armadan errekrutatu.	Haur guztiek eskubidea dute laguntza jasotzeko, zaurituak, abandonatuak, tratu txarra jasotakoak edo gerrak erasandakoak badira, beren osasuna eta duintasuna berreskuratu ditzaten.	Legea urratzeaz akusatutako haurrek eskubidea dute laguntza legala jasotzeko eta justiziaren berme guztiak izateko, beren eskubideak eta duintasuna errespetatuak izan daitezen. Aukeran beste soluzio batzuk egon behar dute, kartzela ez direnak, haiei gizartearen kide onberak izaten laguntzeko. Kartzelak azken aukera izan behar du beti.	Herrialde bateko legek Hitzarmen honek baino hobeto babesten badituzte haurrek, lege horiek izango dira aplikatu beharrekoak.	Gobernuak aktiboki ezagutzera eman behar dute Hitzarmen hau haurren eta helduen artean, mundu guztiak ezagutu ditzan haurren eskubideak.



HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIO BATUEN HITZARMENA – BERTSIO LABUR-BILDUA

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena herrialdeen arteko garrantzi handiko akordio bat da munduko haur eta nerabe guztien eskubideak babesteko.

Hitzarmenak azaldu egiten ditu zeintzuk diren haurren eskubideak baita gobernuak dituzten erantzukizunak ere eskubide horiek bete daitezen. Eskubide guztiak daude elkar lotuta, guztiek dute garrantzi bera eta haur bakar bati ere ezin zaizkio ukatu.

Testu honek Haurren Eskubideei buruzko Batzordearen babesa jaso du.



Artikulu hauek azaltzen dute nola lan egingo duten gobernuak, Nazio Batuek (Haurren eskubideei buruzko Batzordea eta UNICEF barne) eta beste erakunde batzuek haur guztiek beren eskubideak erabiltzen dituztela ziurtatzearren.

43-54